

## Irakaskuntza gida

### 1. Ikastaroaren deskribapena

Ikastaroa merkataritza zuzenbidean interesatua dagoen edonori zuzendua dago, bereziki zuzenbideko edo ekonomia eta enpresa ikasketak burutu nahi dituzten ikasleei. Ematen zaien materiala gai desberdinen funtsezko azalpen bat da. Gai horietan sakonago murgiltzeko aukera izango dute aipatzen diren irakurketa gehigarrien bitartez. Irakurritako gai horiei buruzko erreflexio bat egiteko beste aukera bat proposaturiko kasu praktikoak lantzekoa izango da.

### 2. Helburuak

Lortu nahi diren emaitzak honako hauek dira nagusiki:

- a) Lehenengo helburua da, oro har, balore-tituluen transmisio-modu desberdinak ezagutzea eta, bereziki, sistema ganbiarioaren funtzionamenduaz jabetzea, behar izanez gero, artzekodun moduan dagokion akzioa jarri ahal izateko edota, alderantziz, zordun gisa akzio baten aurrean dagokion salbuespena baliatzeko.
- b) Bigarren helburua merkataritzako kontratuak ezagutzea da, beren inguruko zenbait arazori irtenbidea eman ahal izateko. Batetik, titulu ganbiarioen oinarri kausala hauetariko kontraturen bat izango da, kreditu ganbiarioagan eragina izan dezakena, eta horren ondorioz zenbait arazo sor daitezke. Bestetik, hauetariko kontratu batzuk tipifikatuak egon arren, asko atipikoak dira eta hauen inguruan ere sortzen diren gatazka juridikoei erantzuna eman beharko zaie.
- c) Arrazoi desberdinengatik jarduera ekonomikoek, negozioek, askotan kaudimengabezi-egoeratan erortzen dira. Kasuak larriagoak edo arinagoak izan daitezke eta egoera horiek kudeatzeko legediak prozedura eta irizpide batzuk ezartzen ditu. Hirugarren helburua horiek ezagutzea da.

### 3. Gaitasunak

- a) Balore-tituluak identifikatu eta hauei dagozkien hainbat arau berezi ezagutu, bereziki beren transmisio-moduen ingurukoak.

- b) Titulu ganbiarioak ezagutu (ganbio-letra, zor-agiria eta txekea) eta sistema ganbiarioaren funtzionamendua ulertu, hau da, nola bideratzen den kreditu ganbiarioaren eraketa, transmisioa, ordainketa, dagozkion akzioak eta salbuespenak.
- c) Merkataritzako kontratu-mota desberdinak identifikatu. Beren edukia eta arauketa ezagutu.
- d) Kontratuen inguruan eta bereziki kontratu atipikoak direnen inguruan sortzen diren gatazka juridikoei erantzun juridiko egokia eta arrazoitua eman.
- e) Hartzekodunen konkurtsoari dagokion prozedura ezagutu: konkurtsoa eskatzeko baldintzak, konkurtsoa deklaratzearen ondorioak zordunarentzako eta hartzekodunentzako eta konkurtsoaren amaibideak.

#### 4. Ikasgaiak

##### Balore-tituluen zuzenbidea

- 1. Balore-tituluak
- 2. Ganbio-letra sortzea
- 3. Ganbio-letraren onarpena eta zirkulazioa
- 4. Ganbio-letraren oinarri kausalak eta salbuespenak
- 5. Ganbio-letraren bermea, ordainketa eta akzioak
- 6. Zor-agiria eta txekea

##### Merkataritzako kontratuak

- 7. Merkataritzako obligazioak eta kontratuak
- 8. Merkataritzako salerosketa
- 9. Lankidetzeta eta banaketako kontratuak
- 10. Bankutako kontratuak (I)
- 11. Bankutako kontratuak (II)
- 12. Baloreen merkatuko kontratuak
- 13. Garraio-kontratua
- 14. Aseguru-kontratua

##### Konkurtso-zuzenbidea

- 15. Hartzekodunen konkurtsoa